# ISEI - IVEI

## Rs10.5. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA OROKORRAK 15 URTEREKIN. PISA 2009.

ISEI·IVEI

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Edizioa: 2011ko ekaina**
**© ISEI•IVEIk argiraratua**

**ISEI•IVEIK ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**KOORDINATZAILEA**
Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta

## 15 URTEKO IKASLEEK PISA 2009 EBALUAZIOAN ZIENTZIAN LORTUTAKO BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOAK[1].

Adierazle honek 15 urteko ikasleek PISA[2] 2009 ebaluazioan Zientzian lortutako emaitzak aurkezten ditu. Ebaluazioan ELGAko[3] 32 herrialdeetako ikasleek eta ELGAkoak ez diren beste 33 herrialdetako ikasleek hartu dute parte.

Emaitzak 15 urterekin Zientzian lortutako ezagutzei eta trebetasunei buruzkoak dira. Ezagutza eta gaitasun horiek erabateko gizarte-partaidetzarako beharrezkotzat jotzen dira.

Datuek Zientziako batez besteko puntuazio orokorren berri ematen dute, 500 puntuko batez bestekoa eta 100 puntuko desbiderapen tipikoa duen eskala batean. ELGAko herrialdeen artean puntuaziorik altuena (554) Finlandiak lortu du, eta apalena (416) Mexikok lortu du. Euskadiko emaitza (495) ELGAko batez bestekoa (501) baino 6 puntu baxuagoa da, eta aldea estatistikoki adierazgarria da. Espainiako batez besteko puntuazioa (488) Euskadiko batez bestekoa baino 7 puntu baxuagoa da eta ELGAko batez bestekoa baino 13 puntu baxuagoa. Bi kasu horietan aldeak adierazgarriak dira.

PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten ELGAko herrialdeei dagokienez, Euskadin Zientzian mutilen puntuazioaren (498) eta nesken puntuazioaren (492) arteko aldea 6 puntukoa da. Mutilen eta nesken puntuazioen arteko alderik handiena (15) Finlandiak du; Hungarian bakarrik lortu dute neskek eta mutilek batez besteko puntuazio berdina Zientzian. ELGAn batez bestekoan ere ez dago alderik nesken eta mutilen puntuazioen artean. Espainian aldea 7 puntukoa da. Bai Euskadin bai Espainian mutilek neskek baino puntuazio altuagoa lortu dute Zientzian.

Euskadiko ikasle gehienak (% 82,9) erdialdeko errendimendu-mailetan daude (2, 3 eta 4). Errendimendu-maila horietan dauden ikasleen ehunekoa ELGAko batez besteko ehunekoa (% 73,5) eta Espainiakoa (% 77,8) baino handiagoa da.

Errendimendu-mailarik baxuenetan (<1 eta 1) Euskadiko ehunekoa (% 13,8) ELGAko batez besteko ehunekoa (% 18) eta Espainiakoa (% 18,2) baino txikiagoa da.

Errendimendu-mailarik altuenei (5 eta 6) dagokienez, Euskadiko ehunekoa (% 3,2) ELGAko batez besteko ehunekoa (% 8,5) baino baxuagoa da eta Espainiakoa (% 4,0) bezainbestekoa.

Euskadin Zientziako emaitza orokorrak PISA 2009 ebaluazioan (495) eta PISA 2006 ebaluazioan (495) berdinak dira. ELGAko batez bestekoaren kasuan, PISA 2009 ebaluazioan (501) puntu bat hazi zen PISA 2006 ebaluazioarekiko (500). Euskadin bezala, Espainian ere ez da aldaketarik izan PISA 2006 (488) eta PISA 2009 (488) ebaluazioen artean.

Sexuaren aldetiko puntuazio-aldeek PISA 2006 ebaluaziotik PISA 2009 ebaluaziora izan duten bilakaera aztertzen denean, Euskadin PISA 2006 ebaluazioan neskek mutilek baino puntuazio altuagoa lortu zutela ikusten da. PISA 2009 ebaluazioan, berriz, mutilek neskek baino puntuazio hobea lortu dute. ELGAko herrialdeen kasuan, PISA 2006 ebaluazioan mutilek neskek baino puntuazio altuagoa lortu zuten, baina PISA 2009 ebaluazioan ez da alderik izan. Espainian mutilek neskek baino puntuazio altuagoa lortu zuten bai PISA 2006 ebaluazioan baita PISA 2009 ebaluazioan ere.

[1] Informazio gehiagorako: PISA 2009 ebaluazioa. Bukaerako txostena. Euskadiko emaitzak. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/pisa2009/PISA2009-EUSKADI-1INFORME.pdf

[2] PISA: Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa

[3] ELGA: Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea. 2009an ELGAko herrialdeak 32 ziren, eta 2011n 34 dira.

Errendimendu-mailei dagokienez, PISA 2006 eta 2009 ebaluazioetan zehar puntuazioen banaketak honako bilakaera hau izan du: Euskadin, ELGAko batez bestekoan eta Espainian errendimendu-maila baxuetako eta altuetako ehunekoak jaitsi egin dira, eta maila ertainetakoak, berriz, igo egin dira.

Euskadin, PISA 2009 ebaluazioan, geruza bakoitzeko batez besteko puntuazioetan, PISA 2996 ebaluazioarekiko, honako aldaketa hauek izan dira: A eredu publikoko puntuazioa 10 puntu hazi da, eta sare publikoko B eta D ereduetan ez da aldaketarik izan. Itunpeko sarean ere A ereduko puntuazioa 6 puntu hazi da, baina B eta D ereduetan puntuazioak 5 puntu jaitsi dira eredu bakoitzean.

.

## Rs10.5.1 taula

**PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten herrialdeetako ikasleek Zientzian lortutako batez besteko puntuazioak.**

| | Media | | Media |
|---|---|---|---|
| **OCDE** | **501** | | |
| Albania | 391 | Italia | 489 |
| Alemania | 520 | Japón | 539 |
| Argentina | 401 | Jordania | 415 |
| Australia | 527 | Kazajistán | 400 |
| Austria | 494 | Kirguistán | 330 |
| Azerbayán | 373 | Letonia | 494 |
| Bélgica | 507 | Liechtenstein | 520 |
| Brasil | 405 | Lituania | 491 |
| Bulgaria | 439 | Luxemburgo | 484 |
| Canada | 529 | Macao-China | 511 |
| Chile | 447 | México | 416 |
| China Taipei | 520 | Montenegro | 401 |
| Colombia | 402 | Noruega | 500 |
| Corea | 538 | Nueva Zelanda | 532 |
| Croacia | 486 | Panamá | 376 |
| Dinamarca | 499 | Perú | 369 |
| Dubai | 466 | Polonia | 508 |
| Eslovenia | 512 | Portugal | 493 |
| **España** | **488** | Qatar | 379 |
| Estados Unidos | 502 | Reino Unido | 514 |
| Estonia | 528 | Rep. Checa | 500 |
| **Euskadi** | **495** | Rep. Eslovaca | 490 |
| Federación Rusa | 478 | Rumanía | 428 |
| Finlandia | 554 | Serbia | 443 |
| Francia | 498 | Shangai-China | 575 |
| Grecia | 470 | Singapur | 542 |
| Holanda | 522 | Suecia | 495 |
| Hong Kong-China | 549 | Suiza | 517 |
| Hungría | 503 | Tailandia | 425 |
| Indonesia | 383 | Trinidad y Tobago | 410 |
| Irlanda | 508 | Túnez | 401 |
| Islandia | 496 | Turquía | 454 |
| Israel | 455 | Uruguay | 427 |

Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

## Rs10.5.1 grafikoa

**PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten herrialdeetako ikasleek Zientzian lortutako batez besteko puntuazioak.**




Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

## Rs10.5.2 taula

**PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten ELGAko herrialdeetako ikasleek Zientzian lortutako batez besteko puntuazioak sexuaren arabera.**

| | Chicas | Chicos | Diferencia[1] |
|---|---|---|---|
| **OCDE** | **501** | **501** | 0 |
| Alemania | 518 | 523 | -6 |
| Australia | 528 | 527 | 1 |
| Austria | 490 | 498 | -8 |
| Bélgica | 503 | 510 | -6 |
| Canada | 526 | 531 | **-5** |
| Chile | 443 | 452 | **-9** |
| Corea | 539 | 537 | 2 |
| Dinamarca | 494 | 505 | **-12** |
| Eslovenia | 519 | 505 | **14** |
| **España** | **485** | **492** | **-7** |
| Estados Unidos | 495 | 509 | **-14** |
| **Euskadi** | **492** | **498** | -6 |
| Finlandia | 562 | 546 | **15** |
| Francia | 497 | 500 | -3 |
| Grecia | 475 | 465 | **10** |
| Holanda | 520 | 524 | -4 |
| Hungría | 503 | 503 | 0 |
| Irlanda | 509 | 507 | 3 |
| Islandia | 495 | 496 | -2 |
| Italia | 490 | 488 | 2 |
| Japón | 545 | 534 | 12 |
| Luxemburgo | 480 | 487 | **-7** |
| México | 413 | 419 | **-6** |
| Noruega | 502 | 498 | 4 |
| Nueva Zelanda | 535 | 529 | 6 |
| Polonia | 511 | 505 | **6** |
| Portugal | 495 | 491 | 3 |
| Reino Unido | 509 | 519 | **-9** |
| Rep. Checa | 503 | 498 | 5 |
| Rep. Eslovaca | 491 | 490 | 1 |
| Suecia | 497 | 493 | 4 |
| Suiza | 512 | 520 | **-8** |
| Turquía | 460 | 448 | **12** |

[1]Balio positiboek neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituztela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kenduraekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz. Letra lodiz idatzitako balioek aldeka estatistikoki adierazgarriak direla adierazten dute.

Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

## Rs10.5.2 grafikoa

**PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten ELGAko herrialdeetako ikasleek Zientzian lortutako batez besteko puntuazioak sexuaren arabera. Sexuen arteko puntuazio-aldeak[4].**




Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

[4] Balioek neskek eta mutilek lortutako batez besteko puntuazioen arteko aldea adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kenduraekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz. Balio positiboek neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituztela adierazten dute.

## Rs10.5.3 taula

**PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten ELGAko herrialdeetako ikasleen banaketa Zientziako errendimendu-mailetan[5].**

| | Nivel <1 | Nivel 1 | Nivel 2 | Nivel 3 | Nivel 4 | Nivel 5 | Nivel 6 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **OCDE** | **5,0** | **13,0** | **24,4** | **28,6** | **20,6** | **7,4** | **1,1** |
| Alemania | 4,1 | 10,7 | 20,1 | 27,3 | 25,0 | 10,9 | 1,9 |
| Australia | 3,4 | 9,2 | 20,0 | 28,4 | 24,5 | 11,5 | 3,1 |
| Austria | 6,7 | 14,3 | 23,8 | 26,6 | 20,6 | 7,1 | 1,0 |
| Bélgica | 6,4 | 11,7 | 20,7 | 27,2 | 24,0 | 9,0 | 1,1 |
| Canada | 2,0 | 7,5 | 20,9 | 31,2 | 26,2 | 10,5 | 1,6 |
| Chile | 8,4 | 23,9 | 35,2 | 23,6 | 7,9 | 1,1 | 0,0 |
| Corea | 1,1 | 5,2 | 18,5 | 33,1 | 30,4 | 10,5 | 1,1 |
| Dinamarca | 4,1 | 12,5 | 26,0 | 30,6 | 20,1 | 5,9 | 0,9 |
| Eslovenia | 3,1 | 11,7 | 23,7 | 28,7 | 23,0 | 8,7 | 1,2 |
| **España** | **4,6** | **13,6** | **27,9** | **32,3** | **17,6** | **3,7** | **0,2** |
| Estados Unidos | 4,2 | 13,9 | 25,0 | 27,5 | 20,1 | 7,9 | 1,3 |
| **Euskadi** | **2,6** | **11,2** | **29,4** | **35,9** | **17,7** | **3,1** | **0,2** |
| Finlandia | 1,1 | 4,9 | 15,3 | 28,8 | 31,2 | 15,4 | 3,3 |
| Francia | 7,1 | 12,2 | 22,1 | 28,8 | 21,7 | 7,3 | 0,8 |
| Grecia | 7,2 | 18,1 | 29,8 | 27,9 | 14,0 | 2,8 | 0,3 |
| Holanda | 2,6 | 10,6 | 21,8 | 26,9 | 25,3 | 11,2 | 1,5 |
| Hungría | 3,8 | 10,4 | 25,5 | 33,2 | 21,8 | 5,1 | 0,3 |
| Irlanda | 4,4 | 10,7 | 23,3 | 29,9 | 22,9 | 7,5 | 1,2 |
| Islandia | 5,5 | 12,5 | 25,8 | 30,4 | 18,8 | 6,1 | 0,8 |
| Italia | 6,1 | 14,5 | 25,5 | 29,5 | 18,6 | 5,3 | 0,5 |
| Japón | 3,2 | 7,5 | 16,3 | 26,6 | 29,5 | 14,4 | 2,6 |
| Luxemburgo | 8,4 | 15,3 | 24,3 | 27,1 | 18,2 | 6,0 | 0,7 |
| México | 14,5 | 32,8 | 33,6 | 15,8 | 3,1 | 0,2 | 0,0 |
| Noruega | 3,8 | 11,9 | 26,6 | 31,1 | 20,1 | 5,9 | 0,5 |
| Nueva Zelanda | 4,0 | 9,4 | 18,1 | 25,8 | 25,1 | 14,0 | 3,6 |
| Polonia | 2,3 | 10,9 | 26,1 | 32,1 | 21,2 | 6,8 | 0,8 |
| Portugal | 3,0 | 13,5 | 28,9 | 32,3 | 18,1 | 3,9 | 0,3 |
| Reino Unido | 3,8 | 11,2 | 22,7 | 28,8 | 22,2 | 9,5 | 1,9 |
| Rep. Checa | 4,7 | 12,6 | 25,6 | 28,8 | 19,9 | 7,2 | 1,2 |
| Rep. Eslovaca | 5,0 | 14,2 | 27,6 | 29,2 | 17,7 | 5,6 | 0,7 |
| Suecia | 5,8 | 13,4 | 25,6 | 28,4 | 18,7 | 7,1 | 1,0 |
| Suiza | 3,5 | 10,6 | 21,3 | 29,8 | 24,1 | 9,2 | 1,5 |
| Turquía | 6,9 | 23,0 | 34,5 | 25,2 | 9,1 | 1,1 | 0,0 |

Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

[5] PISA 2009 ebaluazioan Zientziako errendimendu-mailak <1etik 6ra doaz. Haien artean 74,6 puntuko distantzia egoteko moduan finkatu dira mailak.

## Rs10.5.3 grafikoa

**PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten ELGAko herrialdeetako ikasleen banaketa Zientziako errendimendu-mailetan.**




<1 eta 1 mailetako ehunekoaren arabera txikienetik handienera ordenatua.

Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

## Rs10.5.4 taula

**PISA 2006 eta PISA 2009 ebaluazioetan parte hartu duten ELGAko herrialdeetako ikasleek Zientzian lortutako puntuazio orokorren bilakaera.**

| | PISA 2006 | PISA 2009 | Diferencia[1] 09-06 |
|---|---|---|---|
| **OCDE** | **500** | **501** | 1 |
| Alemania | 516 | 520 | 5 |
| Australia | 527 | 527 | 0 |
| Austria[2] | 511 | 494 | _ |
| Bélgica | 510 | 507 | -4 |
| Canadá | 534 | 529 | -6 |
| Chile | 438 | 447 | 9 |
| Corea | 522 | 538 | **16** |
| Dinamarca | 496 | 499 | 3 |
| Eslovenia | 519 | 512 | -7 |
| **España** | **488** | **488** | 0 |
| Estados Unidos | 489 | 502 | **13** |
| **Euskadi** | **495** | **495** | 0 |
| Finlandia | 563 | 554 | **-9** |
| Francia | 495 | 498 | 3 |
| Grecia | 473 | 470 | -3 |
| Holanda | 525 | 522 | -3 |
| Hungría | 504 | 503 | -1 |
| Irlanda | 508 | 508 | 0 |
| Islandia | 491 | 496 | 5 |
| Italia | 475 | 489 | **13** |
| Japón | 531 | 539 | 8 |
| Luxemburgo | 486 | 484 | -2 |
| México | 410 | 416 | 6 |
| Noruega | 487 | 500 | **13** |
| Nueva Zelanda | 530 | 532 | 2 |
| Polonia | 498 | 508 | **10** |
| Portugal | 474 | 493 | **19** |
| Reino Unido | 515 | 514 | -1 |
| Rep. Checa | 513 | 500 | **-12** |
| Rep. Eslovaca | 488 | 490 | 2 |
| Suecia | 503 | 495 | -8 |
| Suiza | 512 | 517 | 5 |
| Turquía | 424 | 454 | **30** |

[1]Kasu batzuetan aldea ez dator bat kenduraekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz. Ageri diren aldeak ELGAk egindako emaitza-tauletakoak dira. Balio positiboek 2009ko batez besteko puntuazioak 2006koak baino hobeak direla adierazten dute. Letra lodiz idatzitako balioek aldeka estatistikoki adierazgarriak direla adierazten dute.
[2]2006ko datuak eta 2009ko datuak ezin dira konparatu.

Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

## Rs10.5.4 grafikoa

**PISA 2006 eta PISA 2009 ebaluazioetan parte hartu duten ELGAko herrialdeetako ikasleek Zientzian lortutako puntuazio orokorren bilakaera[6].**




Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

[6] Balio positiboek 2009ko batez besteko puntuazioak 2006koak baino hobeak direla adierazten dute. Balio negatiboek 2009ko batez besteko puntuazioak 2006koak baino apalagoak direla adierazten dute.

## Rs10.5.5 taula eta grafikoa

**PISA 2006 eta PISA 2009 ebaluazioetan Zientzian lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera sexuaren arabera.**

| | Chicas | | Chicos | | Diferencia[1] | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **2006** | **2009** | **2006** | **2009** | **2006** | **2009** |
| Euskadi | 496 | 492 | 493 | 498 | 3 | -6 |
| OCDE | 499 | 501 | 501 | 501 | **-2** | 0 |
| España | 486 | 485 | 491 | 492 | -4 | **-7** |

[1]Balio positiboek neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituztela adierazten dute. Letra lodiz idatzitako balioek aldeka estatistikoki adierazgarriak direla adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kenduraekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.




Kontuan izan eskala ez dela zerotik hasten, Euskadi, ELGA eta Espainiako puntuazioen arteko aldea argiago adieraztearren.

Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

## Rs10.5.6 taula eta grafikoa

**Zientziako errendimendu-mailetako ehunekoen bilakaera PISA 2006 eta PISA 2009 ebaluazioetan.**

| | Niveles <1 y 1 | | Niveles 2, 3 y 4 | | Niveles 5 y 6 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **2006** | **2009** | **2006** | **2009** | **2006** | **2009** |
| Euskadi | 15,7 | 13,8 | 79,9 | 82,9 | 4,3 | 3,2 |
| OCDE | 19,2 | 18,0 | 71,8 | 73,5 | 9,0 | 8,5 |
| España | 19,6 | 18,2 | 75,5 | 77,8 | 4,9 | 4,0 |




Iturria: PISA 2009. ELGA txostena.

## Rs10.5.7 taula eta grafikoa

**PISA 2006 eta PISA 2009 ebaluazioetan Zientzian lortutako batez besteko puntuazioak geruzen arabera[7].**

| | Pública | | Concertada | |
|---|---|---|---|---|
| | **2006** | **2009** | **2006** | **2009** |
| Modelo A | 436 | 446 | 514 | 520 |
| Modelo B | 477 | 476 | 505 | 500 |
| Modelo D | 487 | 487 | 501 | 496 |
| **Euskadi-06** | **495** | | **Euskadi-09** | **495** |







Iturria: PISA 2009. Euskadi, ISEI-IVEI.

[7] Geruza: hezkuntza sarea eta irakasteredua. Euskadin bi sare daude (publikoa eta itunpekoa) eta hiru irakasteredu: A eredua (guztia gaztelaniaz irakasten da), B eredua (gaztelaniaz eta euskaraz irakasten da) eta D eredua (guztia euskaraz irakasten da).